

FRANTZIAN GERTATZEN DENA EZ DA ARRAZAKERIAREN KONTRAKO BORROKAREN “AMERIKARTZEA”

Frantziako poliziaren arrazakeriaren gaia aktualitatean kokatzea lortu du Egia eta Justizia Adamarentzat izeneko komiteak. Poliziak Adama Traore hil zuen 2016ko uztailak 19 hartaz geroztik, etengabe, hiriz hiri, auzoz auzo, pertsonaz pertsona egindako jakinarazte lan alimalearen emaitza da gaur egun Frantziako kaleetan iragaiten ari dena. Borroka antiarrazistaren “amerikartzea” dela erratea, arazoaren parean itsu izaten segitzea da. Frantziako Estatuan hemeretzi lagun hil eta beste 117 larriki kolpatu zituen poliziak iaz. Eta hiri inguruetakoez eguneroko ogi dituzte polizia gehiegikeriak eta arrazakeriak.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

20.000 lagun batu ziren Parisko Auzitegiaren aitzinean ekainaren 2an eta hortik bi astetara berriz ere beste hamarnaka mila, Egia eta Justizia Adamarentzat Komitearen (*Comité Vérité et Justice pour Adama*) deia erantzunez, Parisez gain, manifestazioak beste hirietan ere burutuz. Ezohikoa eta historikoa da Frantziako Estatuan gertatzen ari dena: arrazakeria sistemikoaren kontrako mezu periferiatik atera eta erdigunean kokatu da, hots, bazter auzoetatik hiri erdigunera pasa da, boteredunek aipatu beharrekoen zerrendan sartzeraino –izan agintari politikoena zein *mainstream* komunikabideena–.

2016ko uztailaren 19an, Val d’Oise Parisko hiri inguruko jendarmerian hildako Adama Traoren heriotzari buruz egia eta justizia exijitzen dabil kolektibo hau. Assa hildakoaren arrebak egindako lan handiari esker, anaiaren hilketaz haratago, Frantziako Estatuan den arrazakeria mekanismoa argiratzeko eta desmuntatzeko grinarekin dabilta borrokan. Egiturazko zapalkuntza horren garro batean zentratzen da komitea: polizia indarkeriaren arrazakerian.

Bataz beste, urtero hamabi pertsona hiltzen dituzte Frantziako poliziek ala jendarmeez. Iaz hemeretzi izan ziren eta beste 117 larriki kolpatu. Datu horrek ere gora egin du COVID-19ari aurre egiteko konfinamenduan –Frantziako polizia ala jendarmeengatik, hamabik dute bizia gal-

du apirilaren 4tik maiatzak 10eko tarte laburrean!–.

Hilketei gehitu behar zaizkie indarkeria fisikoak, kontrolak, presioak zein irainak, eta zenbaki guztiak bat datoz ondorengo ondorioztatzeko: *banlieue*-tan, hau da, Frantziako hiri inguruetan dira gehiengoan bideratzen. Hots, jatorriz kanpokoak –baina usu hiru edo lau belaunaldi Frantziaren pasatako familia-koak– dira biktimak. “Enplegua, etxebizitza, hezkuntza ala beste, egoera kaskarra pairatzen dugu, baina guzti horrek oinarri bera du: arrazismo estrukturala dago Frantziaren”, azaltzen zion ARGIAri Louisa Yousfi arrazismoaren aurka dabilen gazte militanteak *Poliziaren gehiegikeriak Frantziako auzo txiroetan* erreportajearen. Horri gehiturik poliziak bideratu indarkeria, egoera jasanezina leherkorra ere da aspaldian. Eskubideen Defendatzailea deitu egitura administratibo ofizialak dio: Frantziako Estatuan beltzek eta arabiarrek poliziaren partetik kontrolatua izateko hogeitaz arrisku gehiago dute.

Arazoa ez da berria eta noski, berdin-berdin arazoarekin bukatzeko aldarrria. Egia eta Justizia Adamarentzat-ek burutu bi manifestazio historikoen gisara, 1983an ere 100.000 lagun batu ziren Parisen, “Berdintasunaren aldeko eta arrazismoaren aurkako martxa” kari. Orduan ere, poliziak tirokaturik ospitalean zegoen Toumi Djaidja gaztearen ahotik atera zen protestarako deia. Marseilla-

tik hamar bat lagun abiatu eta ehun mila batu ziren Parisko azken kilometroetan. Tartean ia 40 urte pasa dira eta arazoak bere hartan dirau. “Polizia auzitan jartzea Errepublika auzitan jartzea da. Eta Frantziaren, Errepublikaren sakralizazio batean izateaz gain, arraza-osagaia erabat falta da”, dio Rokhaya Diallo arrazakeriaren kontrako militante eta kazetariak. Hori horrela da, *liberté, égalité, fraternité* trinitatea itsuki errepikatzen eta iragan kolonialari amnesiko bailitzan bezala dabilen Frantziaren.

OMEN, BORROKA “AMERIKARTUA”

Nahiko deigarria da *mainstream* komunikabideek Frantziaren gertatzen ari denaz duten irakurketa. Salbuespenak salbuespen, aho batez dabilta arrazakeriaren kontrako haserre popularra AEBetako George Floyd afroamerikarren heriotzari lotzen. Noski, gertakizun horrek hauspotu zuen sua –Traore ere Floyden gisara zendu zelako eta bien azken hitzak “itotzen naiz” izan zirelako–, baina pindarrak hor ziren aurretik. Tartean, konfinamendu garaian biderkatu polizia gehiegikerien bideo bortitzak sortu ezinegon.

Komunikabide hauen diskurtsoaren azterketa irakur daiteke www.arretsu-images.net webgune independenteko *Antiarrazismo frantsesa amerikartu al da? (l’antiracisme français s’est-il américanisé?)* artikulua mamitsuan. Adibideen artean, *Le Point* komunikabideko edito-



KALEAK HARTU DITU BORROKA ANTIARRAZISTAK.

MILAKA LAGUN ATERA ZIREN KALERA EKAINAREN 2AN ETA 13AN, ADAMA TRAOREREN HERIOTZARI BURUZKO EGIA ETA JUSTIZIA EXIJITZEKO. TRAOREZ HARATAGO, POLIZIAREN ARRAZAKERIA ETA INDARKERIA SALATZEKO PROTESTAK IZAN ZIREN.

rialaren pasarte hau: “Arrazialistek lortu dute Frantziako egoerarako amerikar irakurketaren inposatzea, eta sinestazte Minneapoliseko polizia txuri batek odol-hotzean hildako George Floyden gisako heriotzak eta gutxiengoaren eskubideen zangopilatze sistematikoak ohi-koak liritezkeela Frantzian. Tetelekeria”. Borroken “amerikartzeko” joera hori ez dute berria eta jada genero eta sexu identitateen aldeko borrokentzat ere berdina leporatzen zuten urte batzuk lehenago.

Hamarkadetan zehar martxan den borrokaren osagaiei ez begiratzeko eta AEBetako aktualitateari lotzeko joerak Frantziako Estatuak goraiatzen duen “unibertsalismoarekin” lotzen ditu artikulak. Modelo unibertsalistaren arabera, guztiak gara herritar eta frantses eta edozein izanik ere gure berezitasun kul-

turalak, eskubide berak ditugu. Nonbait, zentzu berera doaz Emmanuel Macron presidenteak ekainaren 15ean plazaratu zituen hitzak. Bi egun lehenago Parisen egindako manifestazio historikoa ez bazuen zuzenki izendatu ere, arrazismoaz mintzo zela, ondokoa adierazi zuen: “Separatistomarik” eta “komunitarismorik” ez duela onartuko. Boterearen logikari segi, unibertsalismoan ez dagoelako bereizkeria estrukturalik eta beraz, elkarbizitza hau kritikatzan dabil-tzanak berez multzoa hautsi eta bereizi nahian dabiltzalako. Irain gisa hartu zitu-ent adierazpen hauek Egia eta Justizia Adamarentzat komiteak.

Bazter hirietako herritarrek jasandako gehiegikeria salatzerakoan “ez dago kerik surik gabe” ukan dute sistematiko erantzun gisa. Postura hori oraindik

presente baldin bada ere, gutxituz doa. Sare sozialei esker, lekuko bideoak hor direlako froga gisa, eta nola ez, bazter hirietan burutu ohi zena hirigunee-tako errealtate bihurtu delako. Jaka Horiek zein mugimendu sozialek jasandako errepresioa oso bortitza izaten ari da Frantzian.

“Borroken konbergentzia” ez baina “ukaldien konbergentzia” izendatzen du egoera hau Eric Fassen soziologoak: “Polizia indarkeriaren esperientzia partekatua”. Salbuespenak salbuespen, bi mugimenduen bateratzerik ez da eta egitekotan, -bai ala bai- zuri gisa dituzten pribilegioei buruz beharko dute gogoetatu Jaka Horiek. Pobrezia, diskriminazioa eta polizia indarkeria biek pairatzen badute, sistema arrazializatuan ez direlako alde berean. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 - 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f t